

2018KO LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNAREN ARLOKO IKERKETA-PROIEKTUETARAKO DIRU-LAGUNTZA

I. ERANSKINA

IKERGAIEN ZERRENTA

1. gaia.- Agente kimiko kartzinogenoekiko esposizio profesionala: tumore-markagailuak eta/edo eraginaren adierazleak identifikatzea.

Helburua: gai kimiko kantzerigeno guztiek ez dute muga-baliorik, eta, izanda ere, alde batetik, balio horrek ez du nahitaez minbizi baten sorrerarekin zerikusirik izan beharrik, eta, bestetik, muga-balio hori betetzeak ez du ziurtatzen etorkizunean minbizi bat ez agertzea. Beraz, beharrezkoa da tumorea garatu aurreko fasean eraginaren adierazleak izatea, eta/edo minbiziaren hasierako fasearen adierazleak, osasunaren zaintzan erabiltzeko, eta, agerikoak eginez gero, lan-baldintzetan ere eragiteko, kasu gehiago sor ez daitezen.

Espero den azken produktua: eraginaren adierazleak eta/edo minbiziaren hasierako fasearen markagailuak, minbizia sor dezaketen gai kimikoen eraginpean diharduten langileen osasuna zaintzeko, bai eta metodo analitikoak ere, gai horiek zehazteko.

2. gaia.- Disruptore endokrinoekiko esposizio profesionala: langileen osasunaren gaineko eragina.

Helburua: langileak hainbat gai kimikoren eraginpean aritu daitezke, eta gai horietako batzuek giza organismoaren hormona gisa joka dezakete; horregatik esaten zaie disruptore endokrino. Gai horiek oso ugariak dira, baina ez dakigu Euskal Autonomia Erkidegoan zehazki zenbateraino dauden zabaldua. Era berean, ez dakigu zer langile diren kalteberenak gai horien aurrean, nahiz eta beti aipatzen diren ugaltzeko adinean dauden gizon eta emakumeak eta haurdun dauden emakumeak.

Espero den azken produktua: datu-base bat honako hauek jasotzeko: EAEn gehien erabiltzen diren disruptore endokrinoak, horien eragina, bakoitzaren aurrean biztanle kalteberenak zein diren, erabiltzerakoan hartzen diren prebentzio-neurriak, ordezkioak, etab.

3. gaia.- Lanaren monitorizazioa: adina versus patologia kronikoa.

Helburua: laneko arrisku jakin batzuk egiaz gertatzea, hainbat faktoreren artean, faktore pertsonalen arabera ere bada. Faktore pertsonal horietako bat adina da, adinaren poderioz giza organismoa ahalmen fisikoak nahiz psikikoak galtzen joaten baita. Alabaina, adinaz gain, zenbait patologia kroniko ere hartu behar dira aintzat, langileengan, haien zereginean eta ingurunean izan dezaketen eraginagatik. Beraz, eginkizun batzuetan beharrezkoa litzateke gizabanakoen zenbait konstanterik buruzko informazioa izatea, eginkizun horiek betetzeko moduan dauden ala ez jakite aldera.

Espero den azken produktua: patologia kronikoei loturiko zenbait konstante monitorizatzeko sistema, langilea bere eginkizunean jarraitzeko moduan dagoen jakiteko haien bidez.

4. gaia.- Migratzaileen alderdi kulturalak eta laneko arriskuak.

Helburua: gaur egungo gizarte globalizatuan, langileak jatorri askotakoak dira edo izan daitezke; hori dela-eta, kultura- eta sinesmen-aniztasun handia egon daiteke eta horrek lanaren antolaketan eta garapenean eragin dezake, baita arriskutzat hartzen den horretan edo bizitzari ematen zaion balioan ere. Horrenbestez, beharrezkoa da jakitea zer faktore kultural diren erabakigarriak laneko arriskuen prebentzioaren esparruan, enpresetan prebentzio arloko politikak garatu ahal izateko.

Espero den azken produktua: garatu beharreko prebentzio-politika berrietan eragin handiena duten alderdi kulturalak zein diren jakitea. Alderdi kultural horiek segurtasunean eta osasunean izan

ditzaketen eragin kaltegarriak ezabatzeko neurriak.

5. gaia.- Erakundeen eraldaketa, enplegu- eta lan-eredu berriak.

Helburua: gizartea aldatzen ari da eta, gizartearekin batera, lan egiteko modua ere bai. Erakunde berri horiek, enplegu-eredu berriek, malgutasunak, telelanak eragina dute laneko arriskuen prebentzioan, baita egindako lanarekin eta lantoki berriekin zerikusia duten segurtasun eta osasun arloko faktore eta arriskueta ere. Hau da, eragina dute garatu beharreko prebentzio-politiken gain.

Espero den azken produktua: aldaketa horiek guztiek langileen osasunean duten eraginari buruzko balorazio-txostena, eta arrisku berri horiek saihesteko ezarri beharreko lan-baldintzak eta saihestu ezin izan diren arriskuak ezabatzeko edo murrizteko neurriak definitzea.

6. gaia.- Legionella pneumophila: Pontiac sukerra eta legionarioaren gaixotasuna.

Helburua: legionella uretan dagoen bakterio bat da eta gai da gizakia kutsatzeko, familiaren, taldearen eta abarren arabera. Gizakiak Pontiac sukerra eta pneumonia gara ditzake bakterio horren ondorioz. Orain arte pneumoniarekin gaixotu diren pertsonen loturiko zenbait arrisku-faktoreen berri badakigu, eta bakterio horren eraginpean egon direnek defentsak gara ditzaketela ere bai, baina ez dakigu zergatik sortzen den ondorio bat eta ez bestea, nahiz eta teoria batzuk izan.

Espero den azken produktua: gaixoak legionellaren eraginez pneumonia garatzeko zer baldintza izan behar dituen eta bakterioak berak ere zer baldintza izan behar dituen zehaztuko duen azterlana.

7. gaia. - Agente kartzinogenoekiko (amianto) esposizio profesionala gertaberritu eta ebaluatzeko tresnak.

Helburua: amiantoarekiko esposizio profesionala balioestea, atzera begira, Euskal Autonomia Erkidegoko profesional eta ekoizpen-jarduerei dagokienez, proiektuan garatu eta baliu daitekeen tresna baten bidez edo lehendik dauden tresnak balioztatuz, eta/edo amianto duten eraikuntzako materialek sute-baldintzetan zer portaera duten aurreikustea.

Espero den azken produktua: tresna bat honako esparru hauetan aplikatzeko: amiantoak eragindako laneko minbiziaren epidemiologia-zaintzarako, kontingentzia profesionalaren zehaztapenerako eta/edo asbesto-liberazioa ebaluatzeko, behin liberatuta gai horrek zer portaera duen neurtze aldera.

8. gaia.- Enpresetan lan-arriskuen prebentzioa ebaluatzeko metodologia, laneko segurtasun, osasun eta ongizatearekin lotutako adierazleen bidez.

Helburua: garapen metodologiko bat egitea, horren bidez laneko arriskuen prebentzioaren hainbat alderdi modu objektiboan aztertze eta adierazleen bidez neurtze, modu horretara uneoro enpresa baten prebentzio-egoera zein den jakiteko.

Espero den azken produktua: enpresa batean laneko arriskuen prebentzioaren alderdiak ebaluatzeko tresna bateratua.

9. gaia.- Laneko arriskuen arrazoen azterketa haztatua.

Helburua: hainbat teoriaren arabera lan-istripuak prebentzioaren porrotaren ondorio dira; modu batera edo bestera, teoria horien guztien arabera hainbat arrazoi eta baldintza uztartzearen ondorioz gertatzen dira istripuak, eta guztietan bereizgarri bera antzematen da: prebentzio-neurri baten edo batzuen gabezia edo gutxiegitasuna. Komeni da jakitea zer eragin izan duten gabezia edo hutsune horiek 2012. eta 2016. urteen artean gertatutako laneko istripuetan.

Espero den azken produktua: analisi multifaktoriala, laneko istripuetan eragina duten aldagaiei

buruzko inpaktu-matrize gurutzatu batean oinarrituta landua, eta istripuak analisi morfologikoaren bitartez multzokatzeko aukera ebaluatzea.